

# Aro digitala: liluraren eta mesfidantzaren artean

Jon Sarasua, Igor Calzada eta Josu Amezaga mahai-inguruan. Hiru eguneko ikastaroaren goiburua: *Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?* Galdera asko izan ziren mahai-inguruan, eta baita ikastaroan zehar ere.

## ONINTZA IRURETA

EHUKO Udako Ikastarotan entzun ahal izan genituen hiru hizlariak, Donostian. Ikastaroa Soziolinguistika Klusterrak antolatu zuen eta hiru egunetarako zuzendu zuen galdera, ondokoa: *Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?* Mahai-ingurua *Hizkuntza identitateak identitate berrien baitan* izenburupean garatu zen.

Pablo Suberbiola moderatzaileak bota zuen motorrak berotzeko galdera (“Zertan eta nola aldatuko dira euskalduntzat euren burua daukaten horiek komunikazio gizarte honetan?”), eta ordutik aurrera, batik bat Sarasua eta Calzada elkarri zirikaka aritu ziren. Igor Calzada soziologoak –Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarako Koordinazio zuzendaria da Jaurlaritza berrian– azkar azaldu zuen mahai-inguruan zehar mantenduko zuen jarrera: “Afizioa dago sare digitalak eta hedabide tradizionalak kontrajartzeko. Teknologia berriak ez ditzagun baztertu, eta era berean, ez gaitzela liluratu. Birtuala eta presentziala kontrajartzea ez da erreala”. Aro berriko euskaldunaren soslaia egiten saiatu zen: sare logika duen pertsona, ekintzailea, digitala, sozialki irekia, edukian kalitatea jaitsiagatik azkartasuna hobetsiko duena eta hizkuntzare-



**“Berrikuntzaren aurrean antsietate gehiegi ez ote daukagun...”**

JON SARASUA

**“Afizioa dago sare digitalak eta hedabide tradizionalak kontrajartzeko”**

IGOR CALZADA

kin ondo pasako duena. Hala errematatu du: “Diskurtso katastrofista egin dezaket, baina ez dut nahi”.

**Teknologia berriak ihesbide?**

Sarasuaren kezka da teknologia berriek ez ote gaituzten liluratu. Teknologia berriak zioenean berrikuntzari buruz ari zen AHTari

buruz, berrikuntza arkitetonikoari buruz –esaterako hemengo tabernak Frantziakoekin alderatu ditu... Calzadari erantzunez aitortu zuen dikotomiarik ez dela egin behar, baina emozionalidade neurritz kanpokoak ez ote dugun ageri galdetu zuen: “Halakoa da hizkuntza politika; orain erabilera, gero teknologia berriak. Arrenkura bat dut. Azken hamarkadetan

diskurtso soziolinguistiko zorrotzik gabe gabiltza, ez diskurtso publikorik eta ez sozialik. Ez ditzagun teknologia berriak ihesbide moduan erabili”. Teknologia berrien azken portua noraino joango den ez omen dakigu. Fluxuak eta errefluxuak izaten omen dira, agian aro hau epe laburreko booma izango da eta gero nekatu egingo gara. “Agian XXII. mendean gutxiago bidaiatuko dugu. Berrikuntzaren kontua erlatibizatzen ari naiz. Agian, sare birtualak eroriko dira, baina interakzio fisikodun sareak ez?”. Bertsolaritzaren adibidea jarri zuen. Motzearan esanda, bertsolaritzak aurrera egingo du *bertsoa.com* webgunerik gabe, baina ez bertso eskolarik gabe.

Calzada kontraerasoan: berrikuntza teknologikoak ekarri behar du berrikuntza soziala. Berritzaileak izatea da bertsolaritza eta jazz

## «Badu zentzurik euskarazko telebistaz hitz egiteak?»

Mahai-inguruan parte hartzeaz gain, bi hitzaldi eman zituen Josu Amezaga EHUko irakasleak, horietako bat *Euskara digitalizazioaren garaian* izenburupean. Gaia konplikatua dela esan zuen eta euskarak aro berri honetan (zalantzati erabili zuen aro berri esamoldea) nolako tokia izango duen misterioa dela aitortu zuen. Uzkur ibili zen aurreikuspenetan, baina etorkizunerako pista politik eman zituen.

### Bidean geratu diren hizkuntzak

Idazkuntza sortu zen, inprenta asmatu zen eta argazki-irradi-telefonoaren garaia heldu zen. Hiru aldaketa horien ondorioz hizkuntza batzuk hegemoniko bihurtu ziren, beste batzuk herri hizkuntza, besteak nazio hizkuntza. Euskara itzalean geratu zen eta aldaketa horiei inolaz ere aurre egin ez zietenak desagertu egin dira. Teknologien eragina hizkuntzengan nabaria da.

### Zer ekarriko du digitalizazioak gure hizkuntzara?

Misterioa da. Eta zer ekarriko du gure gizartera? Hori ere misterioa. Amezaga ez da apologeta, ezta apokaliptikoa ere (berak esanda).

### Egoeraren lau arrasto

- ✓ Satellite bidez 80 bat hizkuntza ikus-entzun daitezke. Horietako bat euskara da.
- ✓ Euskara medio guztietan dago.
- ✓ Interneten lehen 40 hizkuntzetako bat da.

- ✓ 382 aplikazio informatiko baino gehiago daude euskaraz.
  - ✓ 200.000 erabiltzaile Interneten.
- Amezagak ez dio ondo ala txarto goazen, dioena da euskarak digitalizazio aroan egon beharra daukala.

### Bihar zeri deituko diogu telebista?

YouTube-ko bideoa ikustea telebista ikustea al da? Bukatu da sofan familia osoa eseri eta telebista ikusten zeneko garaia. Telebista, telebistan, ordenadorean, sakelakoan... ikusten dugu. Telebista kualitatiboki aldatu da: tematikoak daude, orotarikoak... Eskaintza izugarri igo da.

Eskaintza orokorra igo da, eta euskarazkoa ere bai: ETB1, ETB3, laster ETB4. Hamaika Telebistak lehenengo abian jarri du Bilbon. Tokiko Telebistek euskaraz egiteko kuota izango dute. Hemendik urte batzuetara 20ren bat kanal euskaraz. Euskara hor egongo da.

### Euskaraz kanalak ala edukiak sortu?

Kanal eleanitzak datoz. Zuk aukeratzen duzu zer ikusi eta zuk aukeratzen duzu zein hizkuntzatan ikusi, azpituluei esker, bikoizketari esker, itzulpen automatikoa-ri esker... Erakunde publikoek ez lukete hobeto euskarazko telebista kanalak sortu baino euskarazko produktuak ekoiztu eta beste kanalei eskaintzea? Eta are gehiago, besteen produktuak itzultzen aritzea?

uztartzea, adibidez. Berritzailea izatea ez da gauzak beste modu batera egitea “modernitoak” garelako. Ondoren, Sarasuak diskurtso soziolinguistiko zorrotzaren gabeziak esandakoari heldu zion: “Errealitatea ikertu? errealitatean sartu egin behar dugu, sortu dezagun errealitate berria”. Jon Sarasuak: “Berrikuntzaren aurrean antsietate gehiegi ez ote daukagun, hori bakarrik esan dut, ilusio gehitxo bezala... Jarradura eta irekidura binomia aipatuko dut. Lehendik datorrenaren fluxuari heltzeko sena behar dugu eta garaian garai-

koari heltzekoa ere bai”. Alabaina, bereari eutsi zion: “Ez dakigu zer daukagun, alzehimerra, minbizia, katarroa... Hori bai, eskanerra badaukagu, teknologia, alegia”.

Mahai-ingurua bururatzera doa, Calzada eta Sarasua mokoka ari dira. Sarasuak azken aurreko kanoikada bota du: “Calzadaren aldarteaz identifikatuta sentitzen naiz, nik ere uste dut eraiki egin behar dugula. Baina hainbesteko eskaintza uholdea pixka bat fikzioa da. Kantitate eta kalitate handiko inputa daukagu. Seme-alabek zertatik egingo dute mikrogunearen

alde? Nire ardura-komunitatea euskara da eta erabilera-komunitateak dira portugesa, gaztelania eta ingelesa pixka bat. Gure seme-alabak ez ditugu hezi ardura-komunitatean”. Calzadak: “Ezin diegu eskatu guztiei arduradun izatea”.

Mahai-ingurua bukatzera doa eta Sarasuak aitortu du nahi baino gehiago erlatibizatu duela agian, eta bukatzeko teknologia berrien aldarria egin nahi du: “Munduko beste toki askotan ez dute, baina guk badugu berrikuntza eta errikuntza sena”. ■

Babeslea: Getxoko Udala



- Errotulua ipintzeko diru-laguntzak
- Gehi@getxo.net itzulpen zerbitzua
- Maketazio zerbitzua
- “Dendaketan” euskara ikastaro laburrak
- Euskara ikasteko diru-laguntzak
- Material sorta interesgarria
- Hizkuntza aholkularitza


